

Hilkortasuna

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

2011

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

Hilkortasuna

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN
2011

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
Osasun Sailburuordetza
Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio
Sanitarioko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SALUD
Viceconsejería de Salud
Dirección de Planificación, Ordenación
y Evaluación Sanitaria

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2013

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia:

1.a, 2013ko maiatza

Ale-kopurua:

50 ale

©

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Osasun Saila

Internet:

www.euskadi.net

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Zuzendaritza, koordinazioa eta elabotazioa:

C. Audicana Uriarte (info-san@ej-gv.es)
Erregistroetako eta Osasun Informazioko Zerbitzua
Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza
Osasun Saila

Diseinua eta maketazioa:

EkipoPO

Inprimatzea:

Eusko Jaurlaritzaren Inprimategi eta Erreprografia Zerbitzua

L. G.:

VI 200-2013



Aurkibidea

- 
- 7** LABURPENA
 - 9** MATERIALA ETA METODOAK
 - 11** EMAITZAK
 - 17** IRUZKINAK
 - 19** TAULAK
 - 47** BIBLIOGRAFIA
 - 49** ESKER ONAK

1 Laburpena

2011. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) bizi diren pertsonen hilkortasunari buruzko informazioa aurkeztuko dugu, baita beste autonomia-erkidegoetan hildakoena ere. Pertsona horien banaketa egiteko, sexua, adina eta lurralde historikoa kontuan hartu dira, oinarrizko heriotza-kausa aldagai nagusi gisa erabiliz.


19.832 heriotza gertatu dira, 9.536 (% 48) emakumezko eta 10.296 (% 52) gizonezko. Arrazoi guztiak kontuan hartuta, hauxe da hilkortasun-tasa gordina: 100.000 biztanleko 912. Horietatik 857 emakumezkoak dira eta 970 gizonezkoak.

Tumoreak dira EAeko biztanleriaren heriotza-kausa nagusia, heriotza guztien % 32 eragin baitute (288ko hilkortasun-tasa gordina 100.000 biztanleko); zirkulazio-aparatuko gaixotasunak daude bigarren tokian, heriotzen % 29 gertatu baitira horien ondorioz (260ko tasa 100.000 biztanleko). Heriotzen % 9 eragin dituzte arnas aparatuko gaixotasunek (81eko tasa 100.000 biztanleko), eta % 6ra iritsi dira nerbio-sistemako gaixotasunak eta buruzko asalduak (100.000 biztanleko 56ko eta 50eko tasekin, hurrenez hurren).

Urtebetetik beherako haurren heriotza-tasa, bizirik jaiotako 1.000 hurreko 2,6 hildako da; eta jaiotza-inguruko heriotza-tasa (hilik jaio direnak gehi bizitzako lehenengo astean hildakoak), guztira jaiotako 1.000 haurretik 4,7koa da.

EAEn, 2011. urtean, jaiotzean dagoen bizi-itzaropena edo batez besteko bizitza 86 urtekoa da emakumezkoetan, eta 79 urtekoa gizonezkoetan. Beraz, emakumezko eta gizonezkoen artean 7 urteko aldeari eutsi egin zaio.

2011. urtean, tumoreak (% 48), zirkulazio-aparatuko gaixotasunak (% 16), kanpo-faktoreak (% 15) eta digestio-aparatuko gaixotasunak (% 5) izan dira, sexu bietan, bizitza-urte potentzial gehien galarazi dituzten heriotza-kausak.



2

Materiala eta metodoak

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) hilkortasun-datuei buruzko informazioa bilatzeko informazio-iturri nagusiak honako hauek dira: Heriotzaren Medikuzko Zientziak / Heriotzaren Buletin Estatistikoak (HMZ/HBE) eta Erditzaeren Buletin Estatistikoak (EBE). Lehenek bizirik jaiotako heriotzak jasotzen dituzte, eta bigarrenek fetuen heriotza berantiarra (haurdunaldiko 22 aste baino gehiago edo 500 gramoko pisua baino gehiago dituztenean).

HMZ/HBEak heriotza ziurtatzen duten medikuek betetzen dituzte. Heriotza gertatu den udalerriko Erregistro Zibilean erregistratzen da hildakoa, eta Estatistikako Institutu Nazionaleko (EIN) dagokion probintziako ordezkariak bidaltzen da HZM/HBEa.

Euskal Estatistikako Erakundearen (EUSTAT) bitartez, HMZ/HBEak Osasun Saileko Hilkortasun Erregistrora heltzen dira, eta, hor, oinarriko heriotza-kausa kodetzen da, Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenaren 10. berrikuspenak (GNS-10) ezarritako irizpide eta arauen arabera¹.

2011n EAEn bizi zirenen estatistika EUSTAT Euskal Estatistika Erakundeak emandako 2011ko urtarrilaren 1eko biztanleen udal estatistikari dagokio, betetako adinaren, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera (2. eranskina). Gainera, EUSTATEk EAEn urte horretan izandako jaiotzen datuak eman ditu, haurren hilkortasun-tasa kalkulatzeko (3. eranskina).

Hona hemen kalkulatu diren hilkortasun-adierazleak: hilkortasun proportzionala eta hilkortasun-tasak, gordinak zein adinaren arabera estandarizatuak (estandarizazio zuzenaren bidez), erreferentziako biztanleria gisa Europako biztanleria estandarra hartuta².

Haurren heriotza-tasaren (urtebetetik beherakoak) analisisan, hildakoen adina hiru alditan taldekatu da: jaioberri goiztiarra (7 egun baino gutxiago dutenak), jaioberri berantiarra (7 egunetik 28 egunera bitartekoak) eta jaioberri ondokoak (28 egunetik urtebetera artekoak).

Hau da haurren heriotza-tasak kalkulatzeko izendatzailea: EAEn 2011 urtean bizirik jaiotakoak, guztira. Horretaz gain, jaiotza-inguruko hilkortasuna (22 astetik gorako ernaldia edo 500 gramo baino gehiagoko pisua izan eta hilik jaiotakoak) aztertu da, baita jaioberri aldi goiztiarrean hildakoak ere, eta hau da horien izendatzailea: jaiotako guztiak, bizirik jaiotakoak gehi 22 astetik gorako ernaldia izan eta hilik jaio direnak³.

Bizi-itxaropena kalkulatzeko, Chiang metodoaren arabera³ laburtutako bizitza-taularen kalkulua erabili da. 5 urteko adin-tarteak aintzat hartu dira, urte batetik beherakoa eta 1-4 urtekoa izan ezik.

¹ Osasunaren Erakunde Panamerikarra. *Clasificación Estadística Internacional de Enfermedades y Problemas relacionados con la Salud*. Hamargarren berrikuspena. 1-3 liburukiak. Washington DC: OEP, 1996.

² Dos Santos I. *Cancer Epidemiology: principles and methods*. International Agency for Research on Cancer, Lyon, 1999, 82. or..

³ Chiang CL. *The Life Table and its applications*. Malabar, Florida: Robert E Krieger Publishing Company, 1884.

Garaiz aurreko hilkortasunaren eragina balioesteko, Galdutako Bizitza Urte Potentzialak (GBUP) kalkulatu dira. Behar baino gazteago hil den pertsona batek bizi izan ez dituen urteak adierazten ditu, eta goiko muga bezala 70 urteko adina hartzen du (4). Konparaketetan populazioen adinaren arabera banaketaren eragina saihesteko, GBUPak Europako biztanleria estandarren adinera egokitu dira.

3 Emaitzak

1. Heriotza-kopurua eta tasak

2011. urtean, EAEn bizi ziren 19.832 pertsona hil dira. Horietako 599 beste autonomia-erkidego batzuetan hil dira. Erregistratutako heriotzak guztira hartuta, 9.536 (% 48) emakumezkoiei dagozkie, eta 10.296 (% 52) gizonezkoiei.


EAEn hauxe da hilkortasun-tasa gordina: 100.000 biztanleko 912,2, eta sexuaren arabera 857,0 emakumezko eta 970,1 gizonezko. Adinaren arabera Europako populazioarekin estandarizatutako hilkortasun-tasa 100.000 biztanleko 335,1 da emakumezkoen kasuan, eta 636,0 gizonezkoen kasuan. Lurralde historikoa kontuan hartzen bada, sexu bietan, honako tasa hauek ateratzen dira: 440,5 Araban, 476,1 Bizkaian eta 458,4 Gipuzkoan (**1. taula**).

1. irudian, azken hamarkadan (2002 - 2011) EAEn hilkortasun-tasek izan duten denboraren arabera bilakaera ikus daiteke, arrazoi guztiak eta sexua kontuan hartuta, eta horiek adinaren arabera estandarizatuta. Emakumeei dagokionez, nabarmen gutxitu da, hain zuzen, % 2,1 (KT % 95, -2,4tik -1,9ra), batez beste, urtean, eta gizonei dagokienez, % 2,3 (KT % 95, -2,5etik -2,0ra).

2. taulan eta **2. irudian**, berriz, heriotza kopurua eta adinaren arabera zehaztutako hilkortasun-tasak bildu dira. Tasa horietan jaitziera nabarmena izan da, bizitzako lehenengo urtearen ondoren 5-9 urteko taldera heldu arte bi sexuetan; eta une horretan beherakada hasten da adinak aurrera egin ahala. Urtebetetik beherako kasuan izan ezik, tasek gain-hilkortasuna adierazten dute gizonetan, emakumeekin alderatuz gero; alderik handienak 5-9 urteko adin-taldean —gizon/emakume taseen arazoia 6,6 da—.

1. irudia. Heriotza-tasaren bilakaera sexuaren arabera. EAE, 2002-2011


Erregistro-tasak*



*Tasak adinaren arabera Europako populazio estandarera egokituta
Iturria: Hilkortasunaren Erregistroa. Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza

2. Irudia. Heriotza-tasak adinaren eta sexuaren arabera. EAE, 2011

Erregistro-tasak*




*Tasak adinaren arabera Europako populazio estandarrera egokituta
Iturria: Hilkortasunaren Erregistroa. Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza

2. Hilkortasuna, heriotzaren oinarriko arrazoiaren arabera

3. irudian, gaixotasun-talde handien banaketa agertzen da, sexua aintzat hartuta. Tumoreak dira EAEko biztanleriaren heriotza-kausa nagusia 2011n, heriotza guztien % 32 eragin baitute; zirkulazio-aparatuko gaixotasunak bigarren tokian daude, horien ondorioz heriotzen % 29 gertatu baitira. Maiztasun-ordena kontuan hartuta, honako hauek datoz atzetik: arnas aparatuko gaixotasunak (% 9), nerbio-sistemako gaixotasunak, eta buruko asalduek (biak % 6ko indizearekin), eta digestio-aparatuko gaixotasunak (% 5).

Sexuaren arabera, hauxe da banaketa: emakumezkoen heriotza-kausa nagusia zirkulazio-aparatuko gaixotasunak dira (% 31), eta, ondoren, tumoreak (% 25), buruko asalduek, arnas aparatuko gaixotasunak (% 8) eta nerbio-sistemako gaixotasunak (% 7), eta, azkenik, digestio-aparatuko gaixotasunak (% 5). Gizonezkoen artean, ostera, tumoreak dira lehenengo heriotza-kausa (% 37), gero, zirkulazio-aparatuko gaixotasunak datoz (% 26); eta, jarraian, beste hauek: arnas aparatuko gaixotasunak (% 10), digestio-aparatuko gaixotasunak eta kanpo-faktoreak (% 5), eta, azkenik, nerbio-sistemako gaixotasunak (% 4).


3. irudia. Heriotza-tasa proportzionala gaixotasun-talde handietan banatuta, sexuaren arabera EAE, 2011



Iturria: Hilkortasunaren Erregistroa. Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza


3.A eta **3.B irudietan** ikus daiteke gaixotasun-talde handien banaketa, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera. 3. eta 4. tauletan (4A, 4B, 4C) hilkortasun-tasak ikus daitezke, gaixotasun-talde handiak, sexua eta lurralde historikoa kontuan hartuta.

3.A. irudia. Heriotza-tasa proportzionala gaixotasun-talde handietan banatuta, lurralde historikoaren arabera. Emakumeak, 2011



Iturria: Hilkortasunaren Erregistroa. Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza

3.B. irudia. Heriotza-tasa proportzionala gaixotasun-talde handietan banatuta, lurralde historikoaren arabera. Gizonak, 2011



Iturria: Hilkortasunaren Erregistroa. Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza

Adin-taldeen araberrako heriotzak **5. taulan** aurkezten dira. Urtebete baino gutxiago dutenen kasuan, jaiotza-inguruko eritasunak eta sortzetiko anomaliak dira sarrien gertatzen diren arrazoiak; bi horien batura adin-talde horretan gertatutako heriotza guztien % 82 da emakumezkoen kasuan, eta % 77 gizezkoen kasuan.

80 urtera arteko emakumeen kasuan, tumoreak dira heriotza-kausak nagusia adin-talde guztietan, 10-19 urte bitartekoan izan ezik; azken horretan kanpo-faktoreek eragiten baitute heriotza gehien. 50 eta 79 urte bitarteko emakumeen artean, zirkulazio-aparatuko gaixotasunak bigarren tokian daude, baina lehenengora igarotzen dira 80 urtetik aurrerako adin-taldean.

15-39 urteko gizonezkoen artean kanpo-faktoreak dira heriotza-kausa nagusia, eta horien atzetik tumoreak eta zirkulazio-aparatuko gaixotasunak datoz. Emakumeen kasuan bezalaxe, tumoreak dira helduaroko heriotza-kausa nagusia 40-84 urtekoen artean, eta horien atzetik zirkulazio-aparatuko gaixotasunak datoz. 85 urtetik aurrera, zirkulazio-aparatuko gaixotasunak dira lehenengo heriotza-kausa.

Hilkortasuna kausa zehatzen eta sexuaren arabera aztertuz gero (**6. taula**), emakumeen heriotza-kausa nagusia garuneko hodiedako gaixotasuna (% 8) dela ikus daiteke (24,2 heriotza 100.000 biztanleko, Europako biztanleriari adinaren arabera egokitutako tasan); bigarren tokian, zahartzaroko eta zahartzaro aurreko buru-asaldu organikoak daude (% 7 eta 18,0ko tasa), eta hirugarrena, kardiopatia iskemikoa, miokardioko infartu akutua eta bihotzeko gainerako gaixotasun iskemikoak barne hartzen dituenak, (% 6 eta 100.000 biztanleko 17,1 heriotzako tasa). Hurrengo kausa ohikoenak, % 5, Alzheimerren gaixotasuna (100.000 biztanleko 12,6 heriotzako tasa) eta bihotz-gutxiegitasuna (11,6/100.000ko tasa) dira. Ondoren datoz gaixotasun hipertentsiboak eta bularreko tumore gaiztoa, 100.000ko 10,2ko eta 18,1eko tasekin, hurrenez hurren; diabetesa, koloneko tumore gaiztoa eta zintzurreko, bronkioetako eta birrikako tumore gaiztoa (% 3), 100.000 biztanleko 7,9ko, 10,5eko eta 15,4ko tasekin, hurrenez hurren.

Gizonezkoen artean, zintzurreko, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoa da lehenengo heriotza-kausa (guztizkoaren % 9), Europako populazioarekin estandarizatutako tasa 100.000 biztanleko 61,3 heriotzako duela, eta bigarren postuan (% 8) kardiopatia iskemikoa dator, 100.000 biztanleko 53,6 heriotzako tasarekin. Hirugarren tokian (% 6), garuneko hodiedako gaixotasunak daude, 37,4 heriotzako tasarekin; jarraian, % 5arekin, biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa (BGBK) dago, 100.000 biztanleko 28,0 heriotzako tasarekin. Maiztasun-ordenaren arabera datoz, ondoren, koloneko tumore gaiztoa (% 4), prostatako tumore gaiztoa (% 4) eta zahartzaroko eta zahartzaro aurreko buruko asalduak (% 4), 100.000 biztanleko 22,8, 20,1 eta 20,7 heriotzako tasekin, hurrenez hurren.

Lurralde historikoei eta emakumeei erreparatuta (**7.A taula**), Araban zahartzaroko eta zahartzaro aurreko buruko asalduak dira lehenengo heriotza-kausa, guztizkoaren % 9, eta 100.000 biztanleko 21,1 heriotzako tasarekin. Bizkaian eta Gipuzkoan asaldu horiek bigarren heriotza-kausa dira (% 7) eta 100.000 biztanleko 17,6ko eta 17,4ko tasak dituzten. Bi lurralde horietan heriotza-kausa nagusia garuneko hodiedako gaixotasunak dira. Bizkaian % 9ko maiztasuna eta 100.000 biztanleko 25,2ko tasa dituzte; Gipuzkoan, ordea, % 8ko maiztasuna eta 24,8ko tasa. Kardiopatia iskemikoa dago zerrendako bigarren tokian Araban, % 7ko indizeaz eta 100.000 biztanleko 20,7 heriotzako tasarekin; Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, hirugarren eta laugarren tokian dago, hurrenez hurren, % 6ko indizeaz eta 100.000 biztanleko 18,4 eta 14,2 heriotzako tasekin. Araban, hirugarren lekuan, garuneko hodiedako gaixotasunak daude, % 7ko indizeaz eta 100.000 biztanleko 18,5 heriotzako tasarekin. Gipuzkoan, ordea, bihotz-gutxiegitasuna da, % 5eko indizearekin eta 13,2ko tasarekin. Ondoren, hiru lurraldeetan, Alzheimerren gaixotasuna dago; heriotza-tasaren % 6 da Araban, eta % 5 Bizkaian eta Gipuzkoan. Horren tasak 14,5koa, 12,4koa eta 12,0koa dira, hurrenez hurren.

Gizonei dagokienez (**7B taula**), Araban eta Gipuzkoan biriketako tumore gaiztoa da heriotza-kausa nagusia, 100.000 biztanleko 61,0eko eta 59,1eko tasekin, eta Bizkaian bigarrena, 100.000 biztanleko 62,8 heriotzako tasekin. Kardiopatia iskemikoa dago zerrendako lehen tokian Bizkaian, % 9ko indizeaz eta 100.000 biztanleko 59,7 heriotzako tasarekin; eta bigarrena Araban (% 6ko indizeaz eta 100.000 biztanleko 37,8 heriotzako indizearekin). Gipuzkoan % 8ko indizea eta 100.000 biztanleko 50,6 heriotzako tasa du. Hirugarren tokian, hiru lurraldeetan, garuneko hodiedako gaixotasunak ageri dira, % 6ko indizeaz, eta tasa 100.000 biztanleko 33,3 heriotzako izanik Araban, 39,8koa Bizkaian eta 35,6koa Gipuzkoan.

3. Haurren hilkortasuna

2011. urtean, 56 heriotza gertatu dira urtebete baino gutxiago duten EAeko biztanleen artean; horrek esan nahi du haurren heriotza-tasa bizirik jaiotako 1.000 biztanleko 2,6koa dela. Lurralde historikoen arabera (**8. taula**), Gipuzkoakoa da tasa txikiena (2,0 1.000tik). **9. taulan** haurren heriotza-tasaren datuak bildu ditugu, aldien, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera.

Jaiotza-inguruko heriotza-tasa 4,7koa da EAEn, jaiotako 1.000 haurretako. Bizkaikoa da tasa altuena, 5,6/1.000, eta Gipuzkoakoa, berriz, baxuena, 3,4/1.000 (**10. taula**).

4. Bizi-itxaropena

Jaiotzean dagoen bizi-itxaropena, edo batez besteko bizitza, EAEn, 2011. urtean, 86,1 urtekoa da emakumezkoetan, eta 79,3 urtekoa gizonezkoetan. Araban dago bizi-itxaropenik handiena jaiotzean: emakumezkoen kasuan 86,7 urte eta gizonezkoen kasuan 80,0 urte. Ondoren, Gipuzkoa dator (86,3 urte emakumezkoetan eta 79,4 urte gizonezkoetan), eta hirugarren Bizkaia (85,8 urte emakumezkoetan eta 79,0 urte gizonezkoetan).

Sexuaren arabera, bizi-itxaropenaren arteko aldea 7 urte ingurukoa da 44 urtera bitarte; eta adinak gora egin ahala aldeak behera egiten du: 69 urtera bitarte 5 urtekoa da eta 2 urtekoa 85 urterekin (**11. taula**).

5. Galdutako bizitza-urte posibleak

Azterketa gaixotasun-talde handiak kontuan hartuta egiten bada, heriotza-kausa hauek eragin dituzte, sexu bietan eta 2011. urtean, bizitza-urte posible gehien galtzea: tumoreek (% 48), zirkulazio-aparatuko gaixotasunek (% 16), kanpo-faktoreek (% 15), digestio-aparatuko gaixotasunek (% 5), nerbio-sistemako gaixotasunek (% 3), arnas aparatukoek (% 3) eta gaixotasun infekzioso eta parasitarioek (% 3).

Arrazoi jakinengatik galdutako bizitza urte posibleak 12. taulan aurkeztu dira.

Emakumeen artean, bularreko tumore gaiztoa da nagusi, 2.238 bizitza-urte posible galarazita, eta Europako populazio estandarren arabera egokitutako 1.000 biztanleko tasa 2,0 heriotzakoa duela. Maiztasunaren arabera, hurrengo ohikoenak dira zintzurreko, bronkioetako eta birrikako tumore gaiztoa (2.050 urte eta 1,8ko tasa), suizidioak eta nork bere buruari eragindako lesioak (848 urte eta 0,9ko tasa), obulutegiko tumore gaiztoa (708 urte eta 0,6ko tasa), garuneko hodietako gaixotasunak (695 urte eta 0,6ko tasa), koloneko tumore gaiztoa (608 urte eta 0,5eko tasa), zirrosia eta gibebeko gaixotasun kronikoak (488 urte eta 0,4ko tasa).

Gizonen artean, garaiz aurreko heriotzen eragile nagusia zintzurreko, bronkioetako eta birrikako tumore gaiztoa da, 4.330 urte galarazi baititu eta Europako populazioaren arabera estandarizatutako 1.000 biztanleko tasa, adinaren arabera egokitua, 3,9 heriotzakoa baitu. Segidan, honako hauek datoz: kardiopatia iskemikoa (3.413 urte eta 3,1eko tasa), suizidioak eta nork bere buruari eragindako lesioak (2.138 urte eta 2,2ko tasa), zirrosia eta gibebeko gaixotasun kronikoak (1.580 urte eta 1,4ko tasa), motordun ibilgailuen zirkulazio-istripuak (1.445 urte eta 1,6ko tasa), eta entzefaloko tumore gaiztoa (1.139 urte eta 1,4ko tasa).

Arabako emakumeen artean, garaiz aurreko heriotzen eragile nagusia biriketako tumore gaiztoa da, 213 urte galarazi baititu eta Europako populazioaren arabera estandarizatutako tasa 1.000 biztanleko 1,3 baita, adinaren arabera. Ondoren, honako hauek dira ohikoenak: bularreko tumore gaiztoa (178 urte eta 1.000 biztanleko 1,1 heriotzako tasa) eta ehun linfatikoetako eta organo hematopoietikoetako tumore gaiztoak, leuzemiak kontuan hartu gabe, (165 urte eta 1.000 biztanleko 1,5 heriotzako tasa). Bizkaiko eta Gipuzkoako emakumeen artean, berriz, bularreko tumore gaiztoa da bizitza-urte posible gehien galarazten dituen, 1.288 eta 773 urte, eta 2,1 eta 2,2 heriotzako tasak 1.000 biztanleko, hurrenez hurren. Bigarren tokian, birrikako tumore gaiztoa dago: 1.225 urte eta 2,0ko tasa Bizkaian, eta 613 urte eta 1,7ko tasa Gipuzkoan. Bi lurralde horietan, hirugarren kausa suizidioak eta nork bere buruari eragiten dizkion lesioak dira: Bizkaiko emakumeengan, 505 urte potentzial galarazten dituzte, eta 1.000 biztanleko 0,9 heriotzako tasa dagokie; Gipuzkoan, ordea, 270 urte eta 0,9ko tasa.

Gizonen artean eta hiru lurraldeak aintzat hartuta, garaiz aurreko heriotzen eragile nagusia zintzurreko, bronkioetako eta birrikako tumore gaiztoa da, 1.000 biztanleko 3,2 heriotzako tasarekin Araban (515

urte), 4,1ekoa Bizkaian (2.370 urte) eta 4,0koa Gipuzkoan (1.445 urtekoa). Garaiz aurreko heriotzen bigarren kausa kardiopatia iskemikoa da, Araban 303 urte galarazi baititu eta 1.000 biztanleko 1,9 heriotzako tasa baitu, Bizkaian 1.928 urte eta 3,3ko tasa, eta Gipuzkoan 1.183 urte eta 3,4ko tasa. Hurrengo eragile ohikoena entzefaloko tumore gaiztoa da Araban (207 urte galarazten ditu eta 1.000 biztanleko 1,8 heriotzako tasa); eta suizidioak eta nork bere buruari eragindako lesioak Bizkaian (1.133 urte galarazten ditu eta 1.000 biztanleko 2,2 heriotzako tasa du) eta Gipuzkoan (873 urte eta 2,9ko tasa). Laugarren tokian, Araban, ezpainenak, aho-barrunbeto eta faringeko tumore gaiztoa dago (188 urte galarazten ditu eta 1.000 biztanleko 1,2 heriotzako tasa du), Bizkaian, zirrosia eta gibelego gaixotasun kronikoak (1.040 urte eta 1,8ko tasa), eta Gipuzkoan, zirkulazio-istripuak (582 urte eta 2,0ko tasa) (**13A**, **13B** eta **13C taulak**).

4 Iruzkina

2011. urtean, heriotza-kopurua % 2,5 handitu da, aurreko urtean baino 475 heriotza gehiago izan dira, baina adinaren arabera egokitutako heriotza-tasa 2010ean baino % 1 txikiagoa da.

Azken 10 urteetan (2002-2011), EAEn adinaren arabera egokitutako heriotza-tasa urtean % 2,1eko erritmoan txikitu da emakumeen kasuan, eta urtean % 2,3koan, gizonen kasuan.

Bi sexuetan, aurreko urteetan bezalaxe, tumoreak eta zirkulazio-aparatuko gaixotasunak dira heriotza-kausa nagusiak oraindik ere (% 60).

Tumoreek eragindako heriotzen kopurua % 4,0 handitu da aurreko urteko zifren aldean. Emakumeei dagokienez, hazkundera % 6,7koa izan da, eta % 1ekoa Europako populazioarekin estandarizatutako tasan; gizonen kasuan, aldiz, heriotza-kopuruaren hazkundera txikiagoa izan da, % 2,4koa, eta tasarena % 0,2koa. Emakumeen kasuan, bularreko tumore gaiztoa dago berriz ere lehen tokian, bai heriotza-kopurua bai Europako populazioarekin adinaren arabera estandarizatutako tasa % 12 hazi baitira 2010eko datuekin alderatuta. Bigarren lekuan, koloneko tumore gaiztoa dago, heriotza-kopurua % 14 eta estandarizatutako tasa % 8 handitu baitira, 2010eko zifren aldean. Gizonen artean, hilkortasun handiena eragiten duen tumorea zintzuruko, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoa da oraindik ere, kasu-kopurua % 5 handitu baita eta tasa estandarizaturia % 1,3; horren atzetik, koloneko tumore gaiztoa dator, 2009. urtearekiko kasu-kopurua % 3 eta estandarizatutako tasa % 4 handitu baitira. Hirugarren lekuan, prostatako tumore gaiztoa dator, kasu-kopurua eta tasa % 8 handitu baitira aurreko urtearekiko.

Zirkulazio-aparatuko gaixotasunek eragindako guztizko heriotza-kopurua % 0,4 urritu da aurreko urtearekiko, bai eta adinaren arabera Europako biztanleriarekin estandarizatutako tasa ere, % 4, hain zuzen ere. Beherakada ez da bi sexuetan berdin gertatu: emakumeen artean heriotza-kopurua % 1,3 hazi da, eta tasa % 4 txikitu da; gizonezkoen artean, heriotza-kopurua % 2 jaitsi da, eta tasa, aldiz, % 6. Emakumeen artean, talde honetako lehen bi kausa nagusien –garuneko hodietako gaixotasunen eta kardiopatia iskemikoen– kasu-kopurua handitu egin da % 1 eta % 5, hurrenez hurren. Bietan, estandarizatutako tasa txikitu egin da aurreko urtearekin konparatuta, % 1 eta % 0,2 hurrenez hurren. Gizonezkoen artean, berriz, arrazoen ordena alderantzizkoa da, eta aldaketak handiagoak izan dira. Gaixotasun-talde horretan, heriotza-kausa nagusia kardiopatia iskemikoa da, kasuen kopurua % 9 eta estandarizatutako tasa % 10 txikitu diren arren. Atzetik, garuneko hodietako gaixotasunak datoz, eta horiek eragindako heriotza-kopurua eta tasa estandarizaturia % 10 handitu dira, aurreko urtearen aldean.

Arnas aparatuko gaixotasunak hirugarren postuan daude, eta kasu-kopurua % 4 handitu da (% 2 emakumeen eta % 6 gizonen kasuan); estandarizatutako tasa, ordea, % 2,5 jaitsi da emakumeen kasuan eta % 1 hazi da gizonen artean, 2012eko datuekiko.

Alzheimer-aren gaixotasunaren kasu-kopurua % 2 handitu da 2010eko zifrekiko; hala ere, estandarizatutako tasa % 2,5 txikitu da. Emakumeen artean, kasuen kopurua % 2 areagotu da, 2010.

urtearen aldean, eta tasa % 3 txikitu da. Gizonen artean, aldiz, kasuak % 3 gehitu dira eta estandarizatutako tasa % 2 txikitu da.

2010. urtetik 2011ra, suizidioen kopurua % 31 handitu da: % 96, emakumeen artean, eta % 16, gizonen artean. Estandarizatutako tasa ere % 31 handitu da: % 91, emakumeen artean, eta % 13, gizonen artean. 2010eko zifrak azken hamarkadako txikienak dira; beraz, bilakaerari erreparatu beharko zaio gorakada balioztatzeko.

Haurren heriotza-tasak ez dira aldatu 2010az geroztik, eta jaiotza-inguruko heriotza-tasa % 14 txikitu da.

Heriotza-kausa guztien ondorioz Galdutako Bizitza Urte Posibleen (GBUP) guztizkoa 18.109 da, emakumezkoen artean, eta 37.458 gizonezkoen artean; horrek esan nahi du % 0,5eko beherakada gertatu dela emakumezkoetan eta %2ko gorakada, ostera, gizonezkoetan, 2010ko datuekin erkatuz gero.

Taulak

1. taula. Heriotza-kopurua eta heriotza-tasa, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera. EAE 2011

	EMAKUMEAK				GIZONAK				BI SEXUAK			
	KOP.	TASA*	TASA**	(KT % 95)	KOP.	TASA*	TASA**	(KT % 95)	KOP.	TASA*	TASA**	(KT % 95)
Araba	1.142	714,3	313,2	(292,6 ; 333,8)	1.377	866,9	599,8	(568,1 ; 631,4)	2.519	790,3	440,5	(422,3 ; 458,7)
Bizkaia	5.340	898,0	344,5	(333,7 ; 355,2)	5.672	1.016,9	650,5	(633,3 ; 667,8)	11.012	955,6	476,1	(466,5 ; 485,8)
Gipuzkoa	3.054	852,6	328,0	(314,6 ; 341,3)	3.247	942,0	628,4	(606,7 ; 650,1)	6.301	896,4	458,4	(446,3 ; 470,6)
EAE	9.536	857,0	335,1	(327,3 ; 342,9)	10.296	970,1	636,0	(623,6 ; 648,4)	19.832	912,2	465,5	(458,5 ; 472,5)

* 100.000 biztanleko heriotza-tasa; gordina

** 100.000 biztanleko heriotza-tasa; adinaren arabera, Europako populazio estandarrera egokituta

Iturria: Hilkortasunaren Erregistroa. Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza. Osasun Saila

2. taula. Heriotza-kopurua eta heriotza-tasa, adin-taldearen eta sexuaren arabera. EAE 2011

Adina	EMAKUMEAK		GIZONAK		BI SEXUAK		TASEN ARRAZOIA
	KOP.	TASA*	KOP.	TASA*	KOP.	TASA*	GIZONEZKOA/ EMAKUMEZKOA
<1	39	376,4	17	161,0	56	267,7	0,4
1-4	5	12,3	10	23,1	15	17,8	1,9
5-9	1	2,1	7	13,8	8	8,1	6,6
10-14	4	9,3	9	19,7	13	14,7	2,1
15-19	6	14,6	9	20,3	15	17,5	1,4
20-24	4	8,2	19	37,3	23	23,0	4,5
25-29	13	20,0	36	53,6	49	37,1	2,7
30-34	29	34,5	41	46,0	70	40,4	1,3
35-39	38	42,7	83	88,0	121	66,0	2,1
40-44	65	75,7	104	116,9	169	96,6	1,5
45-49	145	166,9	242	282,6	387	224,4	1,7
50-54	207	251,2	386	483,3	593	365,5	1,9
55-59	211	295,0	520	759,3	731	522,1	2,6
60-64	263	383,9	681	1.052,7	944	708,7	2,7
65-69	327	553,5	810	1.533,1	1.137	1.016,0	2,8
70-74	424	852,6	968	2.358,6	1.392	1.533,6	2,8
75-79	989	1.835,9	1.634	4.042,2	2.623	2.781,8	2,2
80-84	1.753	4.049,3	2.053	7.657,6	3.806	5.429,2	1,9
85 y +	5.013	12.270,2	2.667	16.296,0	7.680	13.421,7	1,3

* 100.000 biztanleko

Iturria: Hilkortasunaren Erregistroa. Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza. Osasun Saila

3. taula. Heriotza-kopurua eta heriotza-tasa, kausa-multzoaren eta sexuaren arabera. EAE, 2011

KAUSA-MULTZOAK	EMAKUMEAK				GIZONAK				BI SEXUAK			
	KOP.	TASA*	TASA**	(KT % 95)	KOP.	TASA*	TASA**	(KT % 95)	KOP.	TASA*	TASA**	(KT % 95)
I. Gaix. infektioso eta parasitarioak	183	16,5	7,1	(5,8;8,3)	146	13,8	9,5	(7,9;11,3)	329	15,1	8,2	(7,2;9,2)
II. Tumoreak	2.415	217,0	112,7	(107,6;117,8)	3.846	362,4	248,3	(240,2;256,4)	6.261	288,0	171,2	(166,7;175,8)
III. Odoleko gaix. eta immunitate-arazoak	31	2,8	1,0	(0,6;1,4)	31	2,9	1,9	(1,2;2,6)	62	2,9	1,4	(1,0;1,8)
IV. Gaix. endokrinoak	359	32,3	11,2	(9,9;12,5)	252	23,7	15,0	(13,1;16,9)	611	28,1	12,9	(11,8;14,0)
V. Asaldu mentalak	707	63,5	18,8	(17,4;20,3)	386	36,4	21,1	(19,0;23,13)	1.093	50,3	19,9	(18,6;21,1)
VI. Nerbio-sistemako gaix.	737	66,2	23,6	(21,7;25,6)	473	44,6	27,5	(24,9;30,1)	1.210	55,7	25,7	(24,1;27,2)
VII. Begiko gaix.	0	0,0	0,0	--	0	0,0	0,0	--	0	0,0	0,0	--
VIII. Belarriko gaix.	0	0,0	0,0	--	0	0,0	0,0	--	0	0,0	0,0	--
IX. Zirkulazio-aparatu gaix.	2.956	265,7	86,2	(82,8;89,6)	2.699	254,3	159,8	(153,7;166,0)	5.655	260,1	119,2	(115,8;122,5)
X. Arnas aparatuko gaix.	766	68,8	23,1	(21,3;25,0)	992	93,5	56,1	(52,5;59,7)	1.758	80,9	35,4	(33,6;37,2)
XI. Digestio-aparatu gaix.	443	39,8	15,3	(13,7;16,9)	503	47,4	31,9	(29,0;34,7)	946	43,5	22,7	(21,1;24,3)
XII. Larruazaleko eta larruazalpeko ehuneko gaix.	30	2,7	0,9	(0,5;1,2)	21	2,0	1,2	(0,7;1,7)	51	2,4	1,0	(0,7;1,3)
XIII. Sist. osteomuskularreko eta ehun konektiboko gaix.	139	12,5	4,2	(3,4;5,0)	72	6,8	4,1	(3,1;5,50)	211	9,7	4,2	(3,6;4,8)
XIV. Ap. genitourinarioko gaix.	184	16,5	5,4	(4,5;6,2)	209	19,7	11,7	(10,1;13,3)	393	18,1	7,6	(6,8;8,4)
XV. Haurdunaldiko/erditzeko arazoak	0	0,0	0,0	--	0	0,0	0,0	--	0	0,0	0,0	--
XVI. Gaixotasun perinatalak	25	2,3	3,9	(2,4;5,4)	7	0,7	1,1	(0,3;1,9)	32	1,5	2,5	(1,6;3,3)
XVII. Sortzetiko malformazioak	18	1,6	1,7	(0,8;2,6)	27	2,5	2,7	(1,6;3,8)	45	2,1	2,2	(1,5;2,9)
XVIII. Gaizki definitutako kausak	307	27,6	8,8	(7,7;10,0)	185	17,4	11,0	(9,4;12,6)	492	22,6	9,9	(9,0;10,9)
XIX. Kanpo-faktoreak	236	21,2	11,2	(9,5;12,9)	447	42,1	33,3	(30,1;36,6)	683	31,4	21,8	(20,0;23,6)

* 100.000 biztanleko heriotza-tasa; gordina

** 100.000 biztanleko heriotza-tasa; adinaren arabera, Europako populazio estandarera egokituta

Iturria: Hilkortasunaren Erregistroa. Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza. Osasun Saila

4 A taula. Heriotza-kopurua eta heriotza-tasa, kausa-multzoaren eta lurralde historikoaren arabera. Emakumezkoak, EAE, 2011

KAUSA-MULTZOAK	ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	KOP.	TASA*	TASA** (IKT % 95)	KOP.	TASA*	TASA** (IKT % 95)	KOP.	TASA*	TASA** (IKT % 95)
I. Gaix. infekzioso eta parasitarioak	17	10,6	6,2 (2,7 ; 9,7)	118	19,8	8,1 (6,3 ; 9,8)	48	13,4	5,6 (3,7 ; 7,5)
II. Tumoreak	288	180,1	107,0 (93,4 ; 120,7)	1.372	230,7	116,0 (109,0 ; 122,9)	755	210,8	109,1 (100,3 ; 117,9)
III. Odoleko gaix. eta immunitate-arazoak	4	2,5	0,9 (0,0 ; 1,8)	16	2,7	1,1 (0,5 ; 1,7)	11	3,1	1,0 (0,4 ; 1,6)
IV. Gaix. endokrinoak	52	32,5	11,7 (8,3 ; 15,1)	184	30,9	11,1 (9,2 ; 13,0)	123	34,3	11,2 (9,0 ; 13,4)
V. Asaldu mentalak	105	65,7	22,0 (17,6 ; 26,5)	379	63,7	18,1 (16,2 ; 20,0)	223	62,3	18,9 (16,2 ; 21,5)
VI. Nerbio-sistemako gaix.	99	61,9	23,8 (18,5 ; 29,0)	398	66,9	23,6 (20,9 ; 26,3)	240	67,0	23,7 (20,2 ; 27,1)
VII. Begiko gaix.	0	0,0	-	0	0,0	0,0	0	0,0	0,0
VIII. Belarriko gaix.	0	0,0	-	0	0,0	0,0	0	0,0	0,0
IX. Zirkulazio-aparatuko gaix.	333	208,3	75,1 (66,4 ; 83,8)	1.703	286,4	91,0 (86,2 ; 95,7)	920	256,9	82,6 (76,8 ; 88,4)
X. Arnas aparatuko gaix.	87	54,4	20,0 (15,5 ; 24,6)	413	69,5	22,5 (20,1 ; 25,0)	266	74,3	25,4 (21,8 ; 28,9)
XI. Digestio-aparatuko gaix.	56	35,0	13,9 (9,9 ; 18,0)	264	44,4	16,6 (14,3 ; 18,8)	123	34,3	13,6 (10,8 ; 16,4)
XII. Larruazaleko eta larruazalpeko ehuneko gaix.	4	2,5	0,8 (0,0 ; 1,5)	13	2,2	0,7 (0,3 ; 1,1)	13	3,6	1,2 (0,5 ; 2,0)
XIII. Sist. osteomuskularreko eta ehun konektiboko gaix.	19	11,9	5,1 (2,6 ; 7,6)	61	10,3	3,5 (2,5 ; 4,5)	59	16,5	5,1 (3,7 ; 6,5)
XIV. Ap. genitourinarioko gaix.	24	15,0	5,4 (3,1 ; 7,8)	105	17,7	5,4 (4,3 ; 6,6)	55	15,4	5,2 (3,6 ; 6,7)
XV. Haurdunaldiko/erditzeko arazoak	0	0,0	-	0	0,0	0,0	0	0,0	0,0
XVI. Gaixotasun perinatalak	2	1,3	2,0 (-0,8 ; 4,7)	19	3,2	5,9 (3,3 ; 8,6)	4	1,1	1,8 (0,0 ; 3,5)
XVII. Sortzetiko malformazioak	7	4,4	4,9 (0,8 ; 8,9)	5	0,8	1,0 (0,0 ; 1,9)	6	1,7	1,4 (0,1 ; 2,8)
XVIII. Gaizki definitutako kausak	22	13,8	6,3 (3,1 ; 9,4)	168	28,3	8,6 (7,1 ; 10,1)	117	32,7	10,2 (8,2 ; 12,2)
XIX. Kanpo-faktoreak	23	14,4	8,1 (3,9 ; 12,3)	122	20,5	11,5 (9,1 ; 13,9)	91	25,4	12,1 (9,1 ; 15,2)

* 100.000 biztanleko heriotza-tasa; gordina

** 100.000 biztanleko heriotza-tasa; adinaren arabera, Europako populazio estandarrean egokituta

Iturria: Hilkortasunaren Erregistroa, Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza. Osasun Saila

4B taula. Heriotza-kopurua eta heriotza-tasa, kausa-multzoaren eta lurralde historikoaren arabera. Gizonezkoak, EAE, 2011

KAUSA-MULTZOAK	ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA					
	KOP.	TASA*	TASA**	((KT % 95)	KOP.	TASA*	TASA**	((KT % 95)	KOP.	TASA*	TASA**	((KT % 95)
I. Gaix. infekzioso eta parasitarioak	25	15,7	11,0	(6,6 ; 15,4)	77	13,8	9,7	(7,5 ; 11,9)	44	12,8	8,6	(6,0 ; 11,2)
II. Tumoreak	555	349,4	251,3	(230,0 ; 272,7)	2.109	378,1	253,1	(241,9 ; 264,4)	1.182	342,9	239,1	(225,1 ; 253,0)
III. Odoleko gaix. eta immunitate-arazoak	3	1,9	1,2	(-0,2 ; 2,5)	19	3,4	2,0	(1,0 ; 2,9)	9	2,6	2,0	(0,6 ; 3,4)
IV. Gaix. endokrinoak	27	17,0	11,4	(7,0 ; 15,8)	149	26,7	16,2	(13,5 ; 18,9)	76	22,1	14,6	(11,2 ; 17,9)
V. Asaldur mentalak	49	30,9	19,9	(14,3 ; 25,5)	207	37,1	20,9	(18,0 ; 23,8)	130	37,7	22,1	(18,2 ; 25,9)
VI. Nerbio-sistemako gaix.	70	44,1	28,8	(21,9 ; 35,6)	229	41,1	24,1	(20,8 ; 27,4)	174	50,5	32,6	(27,6 ; 37,6)
VII. Begiko gaix.	0	0,0	0,0	- - -	0	0,0	0,0	- - -	0	0,0	0,0	- - -
VIII. Belarriko gaix.	0	0,0	0,0	- - -	0	0,0	0,0	- - -	0	0,0	0,0	- - -
IX. Zirkulazio-aparatu gaix.	312	196,4	130,3	(115,6 ; 145,0)	1.550	277,9	171,3	(162,5 ; 180,1)	837	242,8	154,0	(143,3 ; 164,7)
X. Arnas aparatuko gaix.	136	85,6	55,4	(45,9 ; 64,9)	550	98,6	56,4	(51,5 ; 61,2)	306	88,8	55,7	(49,4 ; 62,1)
XI. Digestio-aparatu gaix.	76	47,9	31,7	(24,4 ; 39,0)	298	53,4	36,0	(31,7 ; 40,2)	129	37,4	25,4	(20,9 ; 29,9)
XII. Larrazaleko eta larruazalpeko ehuneko gaix.	1	0,6	0,4	(-0,4 ; 1,1)	10	1,8	1,1	(0,4 ; 1,7)	10	2,9	1,7	(0,6 ; 2,8)
XIII. Sist. osteomuskularreko eta ehun konektiboko gaix.	14	8,8	5,9	(2,6 ; 9,2)	30	5,4	3,0	(1,9 ; 4,1)	28	8,1	5,0	(3,1 ; 6,9)
XIV. Ap. genitourinarioko gaix.	24	15,1	10,0	(6,0 ; 14,1)	108	19,4	11,1	(9,0 ; 13,3)	77	22,3	13,3	(10,2 ; 16,3)
XV. Haurdunaldiko/erditzeko arazoak	0	0,0	0,0	- - -	0	0,0	0,0	- - -	0	0,0	0,0	- - -
XVI. Gaixotasun perinatalak	1	0,6	0,9	(-0,9 ; 2,8)	3	0,5	0,9	(-0,1 ; 1,9)	3	0,9	1,3	(-0,2 ; 2,9)
XVII. Sortzetiko malformazioak	6	3,8	4,1	(0,6 ; 7,7)	13	2,3	2,7	(1,1 ; 4,3)	8	2,3	2,2	(0,7 ; 3,8)
XVIII. Gaizki definitutako kausak	17	10,7	7,5	(3,9 ; 11,1)	85	15,2	9,2	(7,1 ; 11,2)	83	24,1	15,6	(12,1 ; 19,0)
XIX. Kanpo-faktoreak	61	38,4	30,1	(22,3 ; 37,8)	235	42,1	33,0	(28,5 ; 37,5)	151	43,8	35,4	(29,5 ; 41,3)

* 100.000 biztanleko heriotza-tasa; gordina

** 100.000 biztanleko heriotza-tasa; adinaren arabera, Europako populazio estandarera egokituta
Iturria: Hilkortasunaren Erregistroa, Piangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza, Osasun Saila

4C taula. Heriotza-kopurua eta heriotza-tasa, kausa-multzoaren eta lurralde historikoaren arabera. Bi sexuak. EAE, 2011

	ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	Nº	TASA*	TASA** (IC95%)	Nº	TASA*	TASA** (IC95%)	Nº	TASA*	TASA** (IC95%)
I. Gaix. infekzioso eta parasi-tarioak	42	13,2	(8,2 ; 10,9)	195	16,9	(9,0 ; 10,3)	92	13,1	(7,0 ; 8,6)
II. Tumoreak	843	264,5	(171,2 ; 183,4)	3.481	302,1	(174,6 ; 180,9)	1.937	275,6	(165,5 ; 173,3)
III. Odoleko gaix. eta immuni-tate-arazoak	7	2,2	(0,2 ; 1,6)	35	3,0	(1,4 ; 1,9)	20	2,9	(1,6 ; 2,4)
IV. Gaix. endokrinoak	79	24,8	(11,9 ; 14,6)	333	28,9	(13,0 ; 14,6)	199	28,3	(13,0 ; 15,0)
V. Asaldu mentalak	154	48,3	(21,0 ; 24,4)	586	50,9	(19,5 ; 21,1)	353	50,2	(20,0 ; 22,1)
VI. Nerbio-sistemako gaix.	169	53,0	(26,4 ; 30,6)	627	54,4	(24,2 ; 26,3)	414	58,9	(27,8 ; 30,7)
VII. Begiko gaix.	0	0,0	-	0	0,0	-	0	0,0	-
VIII. Belarriko gaix.	0	0,0	-	0	0,0	-	0	0,0	-
IX. Zirkulazio-aparatuko gaix.	645	202,4	(100,9 ; 109,1)	3.253	282,3	(126,7 ; 131,4)	1.757	250,0	(114,2 ; 119,9)
X. Arnas aparatuko gaix.	223	70,0	(34,1 ; 38,9)	963	83,6	(35,0 ; 37,4)	572	81,4	(36,4 ; 39,6)
XI. Digestio-aparatu gaix.	132	41,4	(21,7 ; 25,6)	562	48,8	(25,3 ; 27,5)	252	35,9	(18,9 ; 21,4)
XII. Larruazaleko eta larruazal-peko ehuneko gaix.	5	1,6	(0,1 ; 1,3)	23	2,0	(0,9 ; 1,2)	23	3,3	(1,3 ; 1,9)
XIII. Sist. osteomuskularreko eta ehun konektiboko gaix.	33	10,4	(5,4 ; 7,4)	91	7,9	(3,3 ; 4,1)	87	12,4	(5,1 ; 6,2)
XIV. Ap. genitourinarioko gaix.	48	15,1	(7,0 ; 9,0)	213	18,5	(7,5 ; 8,5)	132	18,8	(8,0 ; 9,4)
XV. Haurdunaldiko/erditzeko arazoak	0	0,0	-	0	0,0	-	0	0,0	-
XVI. Gaixotasun perinatalak	3	0,9	(1,4 ; -0,2)	22	1,9	(3,4 ; 3,1)	7	1,0	(1,6 ; 2,7)
XVII. Sortzetiko malformazioak	13	4,1	(4,6 ; 1,9)	18	1,6	(1,8 ; 2,7)	14	2,0	(1,9 ; 2,9)
XVIII. Gaizki definitutako kausak	39	12,2	(6,7 ; 4,4)	253	22,0	(9,1 ; 10,3)	200	28,5	(12,8 ; 14,6)
XIX. Kanpo-faktoreak	84	26,4	(18,4 ; 14,2)	357	31,0	(21,6 ; 24,1)	242	34,4	(23,6 ; 26,9)

* 100.000 biztanleko heriotza-tasa; gordina

** 100.000 biztanleko heriotza-tasa; adinaren arabera. Europako populazio estandarera egokituruta

Iturria: Hilkortasunaren Erregistroa, Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza, Osasun Salla

5. taula. Heriotza-kausa nagusien kopurua eta tasak, adin-tarteen eta sexuaren arabera. EAE, 2011

EMAKUMEAK				GIZONAK		
ADINA	KAUSAK	KOP.	TASA*	KAUSAK	KOP.	TASA*
< 1	Gaixotasun perinatalak	24	231,6	Gaixotasun perinatalak	7	66,3
	Sortzetiko malformazioak	8	77,2	Sortzetiko malformazioak	6	56,8
	Nerbio-sistemako gaix.	4	38,6	Gaix. endokrinoak	1	9,5
1 - 4	Gaix. infektzioso eta parasitarioak	1	2,5	Tumoreak	3	6,9
	Tumoreak	1	2,5	Nerbio-sistemako gaix.	2	4,6
	Gaix. endokrinoak	1	2,5	Odoleko gaix. eta immunitate-arazoak	1	2,3
5 - 9	Gaix. endokrinoak	1	2,5	Tumoreak	4	7,9
				Sortzetiko malformazioak	2	4,0
				Nerbio-sistemako gaix.	1	2,0
10 - 14	Kanpo-faktoreak	3	7,0	Tumoreak	5	11,0
	Tumoreak	1	2,3	Kanpo-faktoreak	3	5,6
15 - 19	Kanpo-faktoreak Gaix. infektzioso eta parasitarioak Tumoreak	3 1 1	7,3 2,4 2,4	Nerbio-sistemako gaix.	1	2,2
				Kanpo-faktoreak	6	13,5
				Tumoreak	2	4,5
20 - 24	Zirkulazio-aparatuko gaix. Tumoreak Kanpo-faktoreak	1 1 1	2,0 2,0 2,0	Zirkulazio-aparatuko gaix.	1	2,3
				Kanpo-faktoreak	15	29,4
				Tumoreak	2	3,9
25 - 29	Zirkulazio-aparatuko gaix. Arnas aparatuko gaix.	4 4 3	6,2 6,2 4,6	Zirkulazio-aparatuko gaix.	1	2,0
				Kanpo-faktoreak	19	28,3
				Tumoreak	8	11,9
30 - 34	Zirkulazio-aparatuko gaix.	4	4,6	Zirkulazio-aparatuko gaix.	4	6,0
				Kanpo-faktoreak	17	19,1
				Tumoreak	11	12,4
35 - 39	Zirkulazio-aparatuko gaix.	5	5,9	Zirkulazio-aparatuko gaix.	6	6,7
				Kanpo-faktoreak	40	42,4
				Tumoreak	13	13,8
	Tumoreak Kanpo-faktoreak Zirkulazio-aparatuko gaix.	23 8 4	25,9 9,0 4,5	Zirkulazio-aparatuko gaix.	5	5,3
				Kanpo-faktoreak	13	13,8
				Tumoreak	5	5,3

* 100.000 biztanleko

Iturria: Hilkortasunaren Erregistroa. Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza. Osasun Saila

.../...

.../...

EMAKUMEA				GIZONAK		
40 - 44	Tumoreak Kanpo-faktoreak Gaix. infektzioso eta parasitarioak	30 15 4	34,9 17,5 4,7	Tumoreak Kanpo-faktoreak Zirkulazio-aparatuko gaix.	36 22 19	40,5 24,7 21,4
45 - 49	Tumoreak Kanpo-faktoreak Gaix. infektzioso eta parasitarioak	99 9 8	114,0 10,4 9,2	Tumoreak Zirkulazio-aparatuko gaix. Kanpo-faktoreak	93 67 32	108,6 78,2 37,4
50 - 54	Tumoreak Zirkulazio-aparatuko gaix. Digestio-aparatuko gaix.	129 22 16	156,6 26,7 19,4	Tumoreak Zirkulazio-aparatuko gaix. Digestio-aparatuko gaix.	188 86 33	235,4 107,7 41,3
55 - 59	Tumoreak Zirkulazio-aparatuko gaix. Digestio-aparatuko gaix.	142 22 11	198,6 30,8 15,4	Tumoreak Zirkulazio-aparatuko gaix. Digestio-aparatuko gaix.	305 96 33	445,4 140,2 48,2
60 - 64	Tumoreak Zirkulazio-aparatuko gaix. Digestio-aparatuko gaix.	167 32 16	243,8 46,7 23,4	Tumoreak Zirkulazio-aparatuko gaix. Digestio-aparatuko gaix.	393 135 38	607,5 208,7 58,7
65 - 69	Tumoreak Zirkulazio-aparatuko gaix. Nerbio-sistemako gaix.	190 48 19	321,6 81,3 32,2	Tumoreak Zirkulazio-aparatuko gaix. Digestio-aparatuko gaix.	443 170 48	838,5 321,8 90,9
70 - 74	Tumoreak Zirkulazio-aparatuko gaix. Nerbio-sistemako gaix.	186 102 36	374,0 205,1 72,4	Tumoreak Zirkulazio-aparatuko gaix. Arnas aparatuko gaix.	472 229 72	1.150,1 558,0 175,4
75 - 79	Tumoreak Zirkulazio-aparatuko gaix. Nerbio-sistemako gaix.	374 258 72	694,3 478,9 133,7	Tumoreak Zirkulazio-aparatuko gaix. Arnas aparatuko gaix.	684 433 140	1.692,1 1.071,2 346,3
80 - 84	Zirkulazio-aparatuko gaix. Tumoreak Nerbio-sistemako gaix.	564 420 168	1.302,8 970,2 388,1	Tumoreak Zirkulazio-aparatuko gaix. Arnas aparatuko gaix.	624 620 253	2.327,5 2.312,6 943,7
85 y +	Zirkulazio-aparatuko gaix. Tumoreak Asaldu mentalak	1.885 633 533	4.613,9 1.549,4 1.304,6	Zirkulazio-aparatuko gaix. Tumoreak Arnas aparatuko gaix.	818 568 145	4.998,2 3.470,6 2.535,7

6. taula. Heriotza-kopuruak eta -tasak, hautatutako kausen eta sexuaren arabera. EAE, 2011

GNS-10	KAUSAK	EMAKUMEAK		GIZONAK		BI SEXUAK	
		Kop.	Tasa*	Kop.	Tasa*	Kop.	Tasa*
A00-B99, R75	Gaix. infektzioso eta parasitarioak	183	7,1	146	9,5	329	8,2
A00-A09	Hesteetako gaix. infektziosoak	12	0,4	16	1,0	28	0,7
A15-A19, B90	Tuberkulosia eta bere efektu berantiarak	10	0,3	10	0,6	20	0,4
A39	Infek. meningokozikoa	1	0,1	0	0,0	1	0,0
A40-A41	Septizemia	116	3,8	56	3,2	172	3,6
B15-B19	Hepatitis birikoa	14	0,6	18	1,2	32	0,9
B20-B24	HIESa	13	1,1	26	2,1	39	1,6
R75	GIB	0	-	0	-	0	-
	Gainerako gaix. infek. eta parasitarioak	17	0,9	20	1,3	37	1,1
C00-D48	Tumoreak	2.415	112,7	3.846	248,3	6.261	171,2
C00-C14	Ezpain, aho-barrunbe eta faringeko T. G.	27	1,6	128	9,6	155	5,4
C15	Hestegorriko T. G.	27	1,6	131	9,0	158	4,9
C16	Urdaileko T. G.	151	6,6	214	13,4	365	9,5
C18	Koloneko T. G.	251	10,5	381	22,8	632	15,7
C19-C21	Ondesteko, sigmoidearen junturako eta uzkioko T. G.	77	3,1	128	8,1	205	5,3
C22	Gibebeko eta gibel-barneko behazun-bideetako T. G.	79	2,9	186	12,5	265	7,3
C25	Pankreako T. G.	166	6,9	177	11,7	343	9,2
	Digestio-aparatuko beste T. G. batzuk	75	2,9	59	3,6	134	3,2
C32	Laringeko T. G.	8	0,4	89	5,6	97	2,7
C33-C34	Zintzur-heste, bronkio eta biriketako T. G.	247	15,4	913	61,3	1.160	35,9
	Arnas sistema eta torax-barneko org. Beste T. G. batzuk	12	0,6	19	1,2	31	0,9
C40-C41	Hezur eta giltzadura-kartilagoetako T. G.	8	0,4	9	0,7	17	0,5
C43	Larruzaleko melanoma gaiztoa	22	1,1	41	3,0	63	2,0
	Larruzaleko eta ehun bigunetako beste T. G. batzuk.	26	1,4	54	3,4	80	2,2
C50	Bularreko T. G.	347	18,1	6	0,3	353	10,0
C53	Umetoki-lepoko T.G.	24	1,4	0	-	24	0,8
C54-C55	Umetokiko beste atal batzuetako T. G.	102	4,6	0	-	102	2,6
C56	Obulutegiko T. G.	90	5,2	0	-	90	2,8
	Emakumeen organo genitalak beste T. G. batzuk	30	1,1	0	-	30	0,7
C61	Prostatiko T. G.	0	-	366	20,7	366	7,8
	Gizonen organo genitalak beste T. G. batzuk	0	-	7	0,5	7	0,2
C64	Giltzurruneko T.G.	52	2,2	91	5,9	143	3,8
C67	Maskuriko T.G.	56	1,7	210	12,7	266	6,4
	Gernu-bideetako beste T. G. batzuk	13	0,5	28	1,8	41	1,1
C71	Garuneko T.G.	87	4,9	110	8,2	197	6,5
	Beste T.G. neurologiko eta endokrino batzuk	11	0,5	19	1,3	30	0,9
C76-C80, C97	Gaizki definitutako edo bigarren mailako tokietako T.G.	127	4,9	152	10,1	279	7,2
C81-C90, C96	Linfa-ehunetako eta organo hematopoietikoetako T. G.	135	5,8	136	8,9	271	7,3
C91-C95	Leuzemiak	88	3,7	86	5,6	174	4,5
D00-D09	In situ tumoreak	1	0,0	1	0,1	2	0,1
D10-D36	T. onaireak	6	0,3	16	0,9	22	0,5
D46	Sindrome mielodisplasikoa	16	0,4	17	1,0	33	0,6
	Portaera zalantzarako eta ezezaguneko beste T. batzuk	54	2,1	72	4,6	126	3,2
D50-D89	Odoleko eta organo hematopoietikoetako gaix.	31	1,0	31	1,9	62	1,4
D50-D77	Odoleko eta organo hematopoietikoetako gaix.	29	0,9	25	1,5	54	1,1
D80-D89	Immunitatearen asal.	2	0,1	6	0,4	8	0,2
E00-E90	Gaix. endokrino nutrizionalak	359	11,2	252	15,0	611	12,9
E10-E14	Diabetes mellitusa	273	7,9	207	12,2	480	9,8
	Guruin endokrinoetako gainerako gaix.	86	3,3	45	2,8	131	3,1
F00-F99	Buruko asaldak	707	18,8	386	21,1	1.093	19,9
F00-F09	Zahartzaroko eta zahartzaro aurreko asaldak organikoak	690	18,0	370	20,1	1.060	19,0
F10	Alkohol-abusuaren ondoriozko asaldak	3	0,2	2	0,2	5	0,2
F11-F16, F18,F19	Droga-abusuaren ondoriozko asaldak	0	-	0	-	0	-
	Buruko beste asaldak batzuk	14	0,6	14	0,9	28	0,7
G00-H95	Nerbio-sist. eta zentz.-org. gaix.	737	23,6	473	27,5	1.210	25,7
G00-G03	Meningitisa	3	0,2	5	0,3	8	0,2
G30	Alzheimer gaix.	477	12,6	184	9,8	661	11,9
	Nerbio-sist. eta zentz.-org. beste gaix. batzuk.	257	10,9	284	17,4	541	13,6

** 100.000 biztanleko heriotza-tasa; adinaren arabera, Europako populazio estandarera egokituta
Iturria: Hilkortasunaren Erregistroa. Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza. Osasun Saila

.../...

GNS-10	KAUSAK	EMAKUMEA		GIZONAK		BI SEXUAK	
		Kop.	Tasa*	Kop.	Tasa*	Kop.	Tasa*
I00-I99	Zirkulazio-sistemako gaix.	2.956	86,2	2.699	159,8	5.655	119,2
I05-I09	Bihotzeko gaixotasun erreumatiko kronikoak	59	2,1	25	1,4	84	1,8
I10-I15	Gaix. hipertentsiboak	399	10,2	222	12,5	621	11,6
I21	Miokardioko Infartu Akutua (MIA)	276	8,5	347	22,2	623	14,7
I20, I22-I25	Bihotzeko beste gaix. iskemiko batzuk	288	8,6	512	31,4	800	18,6
I50	Bihotz-gutxiegitasuna	443	11,6	215	12,3	658	12,2
	Bihotzeko beste gaix. batzuk	588	17,7	539	31,8	1.127	23,9
I60-I69	Garuneko hodiedako gaix.	793	24,2	658	37,4	1.451	29,8
I70	Ateroesklerosia	45	1,2	37	2,0	82	1,5
	Adol-hodien beste gaix. batzuk	65	2,2	144	8,8	209	5,0
J00-J99	Arnas sistemako gaix.	766	23,1	992	56,1	1.758	35,4
J09-J11	Influenza	8	0,4	8	0,5	16	0,4
J12-J18	Pneumoniak	136	4,5	148	9,0	284	6,1
J40-J44, J47	BGBK eta antzeko gaix.	200	6,1	504	28,0	704	14,1
J45-J46	Asma	60	1,6	14	0,8	74	1,4
J96	Arnas gutxiegitasuna	61	1,7	36	2,1	97	1,9
	Arnas sistemako beste gaix. batzuk	301	8,8	282	15,8	583	11,5
K00-K93	Digestio-sistemako gaix.	443	15,3	503	31,9	946	22,7
K25-K28	Urdail, duodeno eta jejunoko ultzera	16	0,5	11	0,7	27	0,6
K50-K52	Enteritis eta kolitis ez infekziosoak	8	0,2	4	0,2	12	0,2
K55	Hesteetako gutxiegitasun baskularra	75	2,2	59	3,4	134	2,7
K70, K73-K74, K76.9	Zirrosia eta gibelesko gaix. kronikoak	98	5,2	200	14,4	298	9,6
	Digestio-sistemako beste gaix. batzuk	246	7,2	229	13,1	475	9,6
L00-L99	Larruazaleko eta azalpeko zelula-ehuneko gaix.	30	0,9	21	1,2	51	1,0
M00-M99	Sist. osteomuskular eta ehun konj. gaix.	139	4,2	72	4,1	211	4,2
M05-M06, M15-M19	Artritis erreumatoidea eta osteoartritis	8	0,3	4	0,2	12	0,3
M80-M82, M84,2	Osteoporosia eta haustura patologikoa	87	2,2	38	2,0	125	2,1
	Sistema osteomuskularreko beste gaix. batzuk	44	1,7	30	1,9	74	1,8
N00-N99	Sist. genitourinarioko gaix.	184	5,4	209	11,7	393	7,6
N00-N29	Giltzurruneko eta ureterreko gaix.	128	3,9	164	9,1	292	5,7
N40-N51	Emakumeen org. Genitaletako gaix. eta bularreko asal.	-	-	15	0,9	-	-
N60-N64, N70-N98	Sistema genitourinarioko beste gaix. batzuk	2	0,1	-	-	-	-
		54	1,4	30	1,7	84	1,5
O00-O99	Haurdunaldia, erditzea eta erdiondoa	0	-	0	-	0	-
P00-P96	Jaioturinguruko denboraldian sortutako gaitzak	25	3,9	7	1,1	32	2,5
Q00-Q99	Sortzetiko malformazioak	18	1,7	27	2,7	45	2,2
Q00-Q07	Nerbio-sist. sortzetiko malf.	2	0,1	1	0,1	3	0,1
Q20-Q28	Zirkulazio-sist. sortzetiko malf.	7	0,9	11	1,3	18	1,1
	Beste sortzetiko malf. batzuk	9	0,7	15	1,4	24	1,1
R00-R74	Gaizki definitutako kausak	307	8,8	185	11,0	492	9,9
R98-R99	Bihotz eta arnas gelditzea (BAG), arrazoi ezagunik gabe	86	2,7	77	4,7	163	3,5
R54	Zahardadea	156	3,9	44	2,5	200	3,5
R95	Bularreko haurraren bat-bateko heriotza	1	0,2	1	0,2	2	0,2
	Gaizki definitutako gainerako kausak	64	2,1	63	3,7	127	2,8
V01-Y98	Kanpo-kausak	236	11,2	447	33,3	683	21,8
V02-V89	Ibilgailu motorduneko trafikoko istripuak	20	1,4	55	4,8	75	3,1
W00-W19	Bestelako garraio-istripuak	2	0,2	10	0,8	12	0,5
W65-W84	Istripuzko erorikoak	44	1,5	81	5,3	125	3,3
X00-X19	Itotzea, urperatzea, itobeharra	36	1,2	52	3,6	88	2,3
X41-X42, X44-X45	Suarekin eta kearekin izandako istripuak	3	0,1	1	0,1	4	0,1
	Drogek eragindako istripuzko pozoidura	11	0,8	37	3,1	48	1,9
	Istripuzko beste pozoidura batzuk	1	0,1	4	0,3	5	0,2
	Beste istripu batzuk	52	1,7	51	3,5	103	2,5
X60-X84	Suizidioa eta nork bere buruari egindako lesioak	49	3,4	123	9,5	172	6,3
X85-Y09	Giza hilketak	4	0,3	11	1,0	15	0,7
Y10-Y34	Intentzio zehaztugabeko gertaerak	0	-	1	0,0	1	0,0
Y40-Y84	Artapen mediko eta kirurgikoen konplik.	14	0,4	17	1,1	31	0,8
	Beste kanpo-kausak batzuk	0	-	4	0,3	4	0,1

7.A taula. Hautatutako kausengatiko heriotza-kopurua eta tasak, lurralde historikoaren arabera. Emakumeak, EAE 2011

GNS-10	KAUSAK	ÁRABA/ÁLAVA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
		Kop.	Tasa*	Kop.	Tasa*	Kop.	Tasa*
A00-B99, R75	Gaix. infektzioso eta parasitarioak	17	6,2	118	8,1	48	5,6
A00-A09	Hesteetako gaix. infektziosoak	1	0,2	7	0,3	4	0,5
A15-A19, B90	Tuberkulosia eta horren ondorio berantiarak	1	0,2	6	0,3	3	0,2
A39	Infekz. meningokokikoa	0	-	1	0,2	0	-
A40-A41	Septizemia	8	3,0	75	4,2	33	3,2
B15-B19	Hepatitis birikoa	2	0,4	10	0,8	2	0,3
B20-B24	SIDA	3	1,7	8	1,2	2	0,5
R75	GIB	0	-	0	-	0	-
	Gainerako gaix. infekz. eta parasit.	2	0,7	11	1,1	4	0,8
C00-D48	Tumoreak	288	107,0	1.372	116,0	755	109,1
C00-C14	Ezpain, aho-barrunbe eta faringeko tum. gaiz.	2	0,8	15	1,7	10	1,8
C15	Esofagoko tum. gaiz.	7	3,2	12	1,4	8	1,3
C16	Urdaileko tum. gaiz.	18	7,7	77	5,7	56	7,6
C18	Koloneko tum. gaiz.	26	8,3	150	11,8	75	9,0
C19-C21	Ondeste, sigmoide eta uzukiko tum. gaiz.	12	3,4	47	3,7	18	2,1
C22	Gibeleko eta gibel-barneko behazun-bideetako tum. gaiz.	10	2,9	45	3,0	24	2,6
C25	Pankreako tum. gaiz.	19	5,7	84	6,1	63	8,9
	Digestio-aparatuko bestelako tum. gaiz.	8	2,1	45	3,4	22	2,3
C32	Laringeko tum. gaiz.	0	-	6	0,6	2	0,3
C33-C34	Trakea, bronkio eta biriketako tum. gaiz.	28	13,0	144	16,2	75	14,9
	Amas aparatua eta torax-barneko organoetako bestelako tum. gaiz.	2	0,8	7	0,6	3	0,5
C40-C41	Hezur eta giltzadura-kartilagoetako tum. gaiz.	0	-	5	0,4	3	0,6
C43	Azaleko melanoma gaiztoa	2	0,8	12	1,1	8	1,3
	Azaleko eta ehun bigunetako bestelako tum. gaiz.	1	0,2	18	1,5	7	1,7
C50	Bularreko tum. gaiz.	29	10,6	207	19,7	111	18,7
C53	Umetoki-lepoko tum. gaiz.	3	1,3	11	1,1	10	2,0
C54-C55	Umetokiaren beste zati batzuetako tum. gaiz.	18	6,2	53	4,5	31	4,1
C56	Obulutegiko tum. gaiz.	12	5,9	58	6,0	20	3,6
	Emakumeen genitaleko bestelako tum. gaiz.	5	1,1	18	1,5	7	0,6
C61	Prostatiko tum. gaiz.	0	-	0	-	0	-
	Gizonen genitaleko bestelako tum. gaiz.	0	-	0	-	0	-
C64	Giltzurruneko tum. gaiz.	6	2,9	29	1,9	17	2,3
C67	Maskuriko tum. gaiz.	4	1,2	37	1,9	15	1,5
	Uretrako eta gernubideetako bestelako tum. gaiz.	2	0,7	8	0,5	3	0,2
C71	Entzefaloko tum. gaiz.	7	3,5	49	4,9	31	5,3
	Bestelako tum. gaiz. neurologiko eta endokrinoak	3	1,0	4	0,3	4	0,5
C76-C80, C97	Gaizki def. eta bigarren mailako lekuetako tum. gaiz.	23	7,6	61	4,1	43	5,0
C81-C90, C96	Ehun linfatikoko eta org. hematop. tum. gaiz.	19	7,8	71	5,7	45	5,0
C91-C95	Leuzemiak	14	5,4	53	3,6	21	3,1
D00-D09	In situ tumoreak	0	-	1	0,1	0	-
D10-D36	Tum. onberak	0	-	4	0,3	2	0,3
D46	Sindrome mielodisplasikoa	2	0,5	10	0,5	4	0,3
	Zalantzako portaerako bestelako tum.	6	2,7	31	2,1	17	1,9
D50-D89	Odoleko eta org. hematopoi. gaix.	4	0,9	16	1,1	11	1,0
